

ELKARREKIN BIZITZEN IKASI: FUNTZIO ETA GENERO ANIZTASUN TESTUINGURUETAN ERRAZTEKO GAKOAK

GAIA	Hezkuntza
ECTS/ORDUAK	150 ORDU
EGUTEGIA	2022/01/17 - 2022/02/26
TOKIA	Bilbo AS Fabrik
HIZKUNTZA	Gaztelania
MODALITATEA	Erdi-presentziala

Informazio gehiago
eta izen-ematea

AURKEZPENA

Ikastaro honetan, funtzio eta genero aniztasuna sakon ezagutuko dugu, kolektibo desberdin, minorizatu eta disidenteak diren aldetik, eta ekintzarako estrategiak diseinatzen ikasiko dugu.

NABARMENDUAK

- ✓ Erreferentziazko bi erakundek eskainia: Mondragon Unibertsitatea eta TeamLabs
- ✓ Funtzio eta genero aniztasunaren ezagutzan sakonduko duzu
- ✓ Agurtzane Martinez eta Amelia Barquín ikertzaileek koordinatua
- ✓ FUNDAEren bitartez hobaria jaso daiteke

KONTAKTUA

HARREMANETARAKOPERTSONA

JULENE GORROTXATEGI

600 02 27 20

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

HELBURUAK

- Funtzio eta genero aniztasunaren ezagutzan sakontzea, kolektibo desberdin, minorizatu eta disidenteak diren aldetik.
- Hezkuntza inklusiboari buruzko diskurtso, teoria, eredu eta interpretazioak eta haien ondorio praktikoak kritikoki analizatzea.
- Bazterkeria arriskuan dauden kolektiboek parte hartzeko eta ikasteko dituzten oztopoak (generoarekin, funtzio aniztasunarekin eta abarrekin loturikoak) identifikatzeko baliabideak eskuratzea.
- Desberdinkeria gainditzen laguntzen duten ikaskuntzarako eta partaidetza sozialerako estrategiak eta ekintzak diseinatzea eta garatzea.

NORI ZUZENDUA

- Ikasleen arrakasta sustatzeko eta desberdinkeria gainditzen laguntzeko irakas estrategiak garatu nahi dituzten **irakasleak** (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta unibertsitatea).
- Kolektibo minorizatuentzako (genero kontuengatik, aniztasun afektibo-sexualagatik eta funtzio eta gorputz aniztasunarengatik) **ikaskuntza edo partaidetza prozesuak** aktibatzen dituzten **kultura eragileak eta gizarte hezitzaileak**.
- **Hirugarren sektoreko erakundeetako eta ikaskuntzarako gune informaletako pertsonal teknikoa**, pertsona guztien ongizaterako eta garapen osasungarrirako testuinguruak diseinatu eta erraztu nahi dituztenak.
- Funtzio eta genero aniztasunean sakondu nahi duten **profesionalak, edozein diziplinatakoak**, betiere diferentzia kontuan hartu eta justizia sozialerako esparruak sortzen dituztenak.

PROGRAMA

Ikasi nahi al duzu hezkuntza esparruan elkarrekin jarduten duten pertsona guztientzako ongizaterako testuinguruak diseinatzeko eta errazten?

Elkarrekin bizitzen ikasteko, beharrezkoa da elkarrekin egotea, baina zer esan nahi du hezkuntza erakunde batean elkarrekin egoteak? Gurekin bizi diren pertsonen berezitasunak ulertuz gero, harremanak sakontzen eta ezagutzen ikasiko dugu.

Ikastaro honetako lan proposamenean, **generoarekin, aniztasun afektibo-sexualarekin eta funtzio eta gorputz aniztasunarekin** loturiko gaiak elkarrekin lotuta landuko ditugu, gure ikuspegiak aberasteko abiapuntu gisa.

Ezin dugu alde zuzenetik jakin zer berezitasun aurkituko ditugun gure bidaia pertsonal eta profesionalean zehar, baina **gure ideiak ezbaian jarriko ditugu**, kritikoki aztertuko ditugu aniztasunarekin eta haren ondorio praktikoekin loturiko diskurtsoak, eta **diferentzia kontuan hartzeko** eta harekin batera gurekin bizi diren gizataldeen bizi kalitatea hobetzeko **testuinguruak diseinatzeko eta errazteko** estrategiak landuko ditugu.

Programa

Ikastaroak bi zati izango ditu. Lehen zatian, zeure begirada analizatuz askotariko errealitateak ulertzeko esparru bat proposatuko dizugu, hau da, desabantailan dauden kolektiboen inputak eta kontakizunak eskainiko dizkizugu, gogoeta kritiko bat egin dezazun.

Ondoren, Bilboko workshop presentzialaren ondotik, bigarren zatia hasiko da. Material espezifikagoak eskuratuko dituzu, baita zeuk aukeraturiko erronka batean sakontzeko aukera ere, ongizaterako inguruneak sortzearekin loturik, eta, horretarako, garapen eta justizia sozialerako estrategiak eta praktikak aztertuko ditugu, hain baitira beharrezkoak bizikidetzarako.

Gure pribilegioak

Nola begiratzen diogu besteari? Bestea hor al dago? Nondik begiratzen diot ni ez naizen beste horri? Lehenik, zure ideiak berrikusi, begiratzeko erabiltzen dituzun betaurrekoak identifikatu, zure egiak zalantzan jarri, eta hunkitzeko esperientziaren aurrean irekitzeko aukera izango duzu.

Gero, zure begirada aztertzen segituz, pribilegioak –baita zureak ere– identifikatzeko ariketa bat proposatuko dizugu.

Gutxiengoaren eraikuntza soziala

Ikastaroaren bigarren blokean, zenbait kontzeptu giltzarri landuko ditugu: interseksionalitatea, agentzia eta subalternitatea.

Queer garapenaren eta pedagogiaren testuinguruak

Hezkuntza inklusiboaren inguruko ibilbide historiko bat osatuko duzu, hezkuntza inklusiboa kolektibo minoritarioen borrokaren ondorio gisa ulerturik, ekarpen interesgarriak eta esanguratsuak egin baitizkigute eskuzabaltasun osoz, hezkuntza denontzat izan dadin.

Gainera, genero rolen, gorputz aniztasunaren, funtzio aniztasunaren eta aniztasun afektibo-sexualaren eraikuntzaren inguruan lan egingo dugu, queer pedagogiak proposatzen duen hurbilpenaren bitartez.

Erronka diseinatzea eta garatzea

Azken zatian, ongizaterako, garapenerako eta justizia sozialerako inguruneak sortzen laguntzeko estrategiak eta praktikak berrikusiko dituzu, zure interesetatik abiatuta, hau da, lan erronka bat diseinatuko duzu, bi ibilbide posible hauekin loturik:

1. Funtzio aniztasuna eta ikaskuntzaren diseinu unibertsala
2. Genero aniztasuna eta aniztasun afektibo-sexuala

EGUTEGIA

2022ko urtarrilaren 17tik otsailaren 26ra (biak barne). Workshop presentziala Bilbon: otsailaren 11 eta 12an.

MATRIKULA

Bidali izena emateko [eskaera orri hau](mailto:eskaera_orri_hau_helbide_honetara: idazkaritza.huhezi@mondragon.edu) helbide honetara: [idazkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto: idazkaritza.huhezi@mondragon.edu)

Harremanetarako pertsona:

Julene Gorrotxategi

600 02 27 20

Izena emateko epea: 2022ko urtarrilaren 14a.

KOORDINAZIOA

- Agurtzane Martinez: amartinez@mondragon.edu
- Beatriz Garcia: beatriz@teamlabs.es

ERAKUNDEA

TeamLabs ikaskuntza laborategiarekin elkarlanean diseinatu dugu ikastaro hau.

Formación Profesionales



FINANTZIAZIO ITURRIAK

Ikastaro honetan, FUNDAEren bitartez, % 100eko hobaria jaso daiteke.

Behar duzun gauza bakarra zure enpresari eskaera egitea da (erakundeek dute kredituaren hobaria jasotzeko aukera). Hortik aurrera, gure kontu egingo dugu kredituari dagokion kudeaketa, aholkularitza eta egiaztapena, aholkulari espezializatuen bitartez.

JASOKO DEN TITULAZIOA

Mondragon Unibertsitateko Elkarrekin bizitzen ikasi: funtzio eta genero aniztasun testuinguruetan errazteko gakoak aditu-ikastaroko parte-hartze ziurtagiria (6 ECTS).

PREZIOA

Alumni elkarteko kideek %10eko deskontua izango dute ikastaro honetan.

INFORMAZIO GEHIAGO

Julene Gorrotxategi

idadzkaritza.huhezi@mondragon.edu

600 02 27 20

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/elkarrekin-bizitzen-ikasi-funtzio-eta-genero-aniztasun-testuinguruetan-errazteko-gakoak>